

**2014KO APIRILAREN 3AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hirua.

HILABETEA: Apirila.

URTEA: Bi mila eta hamalau.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa.

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: Koldo Agirre Mujika

BILDUAK:

- M^a Mar Celaya Gonzalez
- Aitor Larburu Izaguirre
- Asier Sarriegui Zumarraga
- Cecilia Herrador Garin
- Idoia Baztarrika Prieto
- Aitor Aldasoro Iturbe
- M^a Luisa Valles Fernandez
- Iñigo Arrese Artabe
- Encarna Arrieta Telleria
- Eva Diaz del Rio
- Alfonso Segade Gonzalez
- Santiago Urdampilleta Dos Santos
- Josi Insausti Mujika
- Julio Herreros Serna
- Garbiñe Zurutuza Fernández

ETORRI GABEA: Leire Artola Ugalde

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

Bileran, Lurdes Alegria Lasa, kontuhartzaileak ere parte hartzen du.

1.- AURREKO AKTA. 2014ko urtarrilaren 23ko aktaren onespena.

2014ko urtarrilaren 23ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zer esanik ez dagoelako.

2.- UDAL ONDASUNEN INBENTARIOA. Inbentarioaren zuzenketa, 2013ko abenduaren 31ko datarekiko.

Alkatea jaunak proposamenaren berri eman du:

“GAIA: INBENTARIOA”

2.013ko abenduaren 31ko datarekin egindako Inbentarioaren eguneraketa onartzea proposatzen dio Hazienda Batzordeak Udalbatzari:

UDALA	Kostu historikoa	Amortizazioa	Neto kontablea
ONDASUN HIGIEZINAK	58.027.787,08 €	5.382.341,79 €	52.645.445,29 €
ERAIKUNTZAK	19.451.939,67 €	4.815.174,70 €	14.636.764,97 €
TERRENOAK	7.623.417,07 €		7.623.417,07 €
JOLASTOKIAK	4.800.881,05 €		4.800.881,05 €
BIALAK / VIALES	24.034.809,79 €		24.034.809,79 €
LANDA FINKAK	30.343,61 €		30.343,61 €
AZPIEGITURA	2.086.395,89 €	567.167,09 €	1.519.228,80 €
ERRENTA ESKUBIDEAK	1.251.408,23 €		1.251.408,23 €
BALORE MOBILIARIOAK	11.608.709,22 €		11.608.709,22 €
IBILGAILUAK	182.420,39 €	94.697,35 €	87.723,04 €
MOBLERIA	2.999.460,59 €	2.097.741,70 €	901.718,89 €
ONDASUN ETA ESKUBIDE BIHUR.	1.093.027,00 €		1.093.027,00 €
GUZTIRA	75.162.812,51 €	7.574.780,84 €	67.588.031,67 €
ERAIKINAK ERABIL LAGAPENEAN	4.219.461,67 €		4.219.461,67 €
LAGAPENEAN JASOTAKO ERAIK.	343.677,54 €	30.918,60 €	312.758,94 €
	79.725.951,72 €	7.605.699,44 €	72.120.252,28 €

KIROLDEGIA

	Kostu historikoa	Amortizazioa	Neto kontablea
MOBLERIA	71.918,99 €	20.551,02 €	51.267,97 €
BALORE MOBILIARIOAK	100,00 €		100,00 €
GUZTIRA	72.018,99 €	20.651,02 €	51.367,97 €

MUSIKA ESKOLA

	Kostu historikoa	Amortizazioa	Neto kontablea
MOBLERIA	133.800,64 €	108.258,50 €	25.542,14 €
GUZTIRA	133.800,64€	108.258,50 €	25.542,14 €

EUSKALTEGIA

	Kostu historikoa	Amortizazioa	Neto kontablea
MOBLERIA / MOBILIARIO	73.767,24	61.293,58 €	12.473,70 €
GUZTIRA / TOTAL	73.767,24 €	61.293,58 €	12.473,70 €

Alkate jaunak (BILDU): "Inbentarioaren balorazioa guztira, lehengo urtearekin alderatuta, 2.629.077,25 €ko igoera du. Alde hori egotearen arrazioa, besteak beste, ondorengo da: Igartza Oleta, 12-D lokalaren eta Zazpiburrieta, 4ko lokalen erosketak, Arana eta Bideluze kalearen urbanizazioak, Igartza Oletako aparkalekuko obrak eta 8. sektoreko lursailen adjudikazioa.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

3.- TAO. Egoiliarren tarifa aldatzeko proposamena.

Alkatea jaunak ondorengo proposamenaren berri eman du:

GAIA.- Ibilgailuen aparkaldi mugatua bide publikoan: Egoiliarren txartelarengatiko tasaren kopurua, zerbitzua emango den epearen arabera, egokitzea.

AURREKARIAK

2013ko urriaren 31n egindako bileran, Udaltzaren 2014 urterako Ordenantza fiskalak onartu zituen, "Egoiliarren txartela"ren tasa 40 €/urteko finkatuz.

Onartutako tasa urtekoa izanik, eta kontutan hartuta "Ibilgailuen aparkaldi mugatua bide publikoan (TAO)" izeneko zerbitzuaren benetako ezarpena ezinezkoa izango dela gauzatzea aurtengo maiatza baino lehen, Hazienda Batzordeak, onartutako tasa, zerbitzua benetan ezarrita egotea aurreikusten den epeari egokitzea proposatzen du eta horren arabera Udaltzaren onespenerako aurkezten du ondorengo

PROPOSAMENA

2014 urterako "Egoiliarren txartela"ri dagokion tasa aldatu eta 25 euro urteko prezioan ezartzea."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

4.- PLANTILA ETA LANPOSTUEN ZERRENDA. 2013ko eta bide batez, 2014ko ekitaldiekiko aldaketa, hutsik dauden Agente plazen klasifikazio-taldeari buruz.

Alkatea jaunak ondorengo proposamenaren berri eman du:

"AURREKARIAK

a) Beasaingo Udaleko Lanpostuen Zerrendan hutsik agertzen diren Udaltzaingoko Agente plazak, C taldera eta C1 azpitaldera atxikita sortu ziren, honek behartzen duela hautaketa prozesuko titulazio eta gai zerrendaren eskakizuna, talde honekin bat datorrena izatea.

Irizpide hau zuzena izanik, hala ere, izan daiteke aipatutako plaza huts hauek, C taldera eta C2 azpitaldera atxikita egotea, horrela hautaketa prozesuko titulazio eta gai zerrendaren eskakizunak bigundu egiten dira; hau guztia uztailaren 17ko Euskal Herriko Poliziaren 4/1992 Legeko 118. artikularenpean, non ondorengo jasotzen den:

1. "Udaltzaingoko Kidegoak ondorengo eskala eta taldetan sailkatzen dira, bere sarrerarako eskatzen den titulazioaren arabera bat datozenak:
 - a) Eskala Teknikoa, hiru kategoriarekin: Intendentea, A Taldeari dagokiona, eta Komisario eta Komisario-ondokoa, B Taldeari dagozkionak.
 - b) Ikuskapen-Eskala, bi kategoriarekin: Ofizialea eta Ofiziale-ondokoa, C Taldeari dagozkionak.

- c) Oinarrizko Eskala, bi kategoriarekin: Agente Lehena eta Agentea, D Taldeari dagozkionak.

2.- Hala ere, sarrerarako oinarrizko ikastaroa et praktikaldia gainditzen dutenak, Udaltzaingoko Kidegoen oinarrizko eskalako funtzionarioak izendatuak izango dira, eta euskal administrazio publikoko funtzionarioen taulako C taldekoak direla ulertuko da.”

b) Maiatzaren 28ko 2/2008 Legeak, Euskal Herriko Polizi Legearen hirugarren aldaketak, hirugarren Xedapen gehigarrian ezartzen du “Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legeak A, B, C eta D sailkapen-taldeak aipatzen dituen guztietan lanbide-sailkapeneko talde berriei egingo die erreferentzia, baliokidetasun hauen arabera:

A taldea: **A taldea, A1 azpitaldea**

B taldea: **A taldea, A2 azpitaldea**

C taldea: **C taldea, C1 azpitaldea**

D taldea: **C taldea, C2 azpitaldea**

Beraz, zuzenbidera doitzen dela ulertuz; Udal Antolakuntza Batzordeak eskumena duten Udaleko organoei kontuan izan dezaten eramaten die ondorengo

PROPOSAMEN AKORDIOA

Beasaingo Udaleko 2013. Ekitaldiko Lanpostuen Zerrenda, Pertsonalaren Plantila eta Lan Eskaintza Publikoa aldatzea, 247 zkiarekin GAO argitaratua, abenduaren 30ean, ondorengo zehaztapenetan:

Hutsik dauden bi Agente plazetan,
Sailkapen Taldea C1 ,**dioen lekuan**, Sailkapen Taldea C2 **esan behar du**.

Aldaketa honek, beraz, 2014ko urtarrilaren 31n, 20. zkia duen GAO n argitaratutako Beasaingo Udaleko 2014. urteko Lanpostuen Zerrendari eta Plantilari eragingo die.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

5.- AUTOKARABANAK. Auto-karabanentzako eta bizitoki ibilgailuentzako zerbitzugunearen ordenantza berria.

Alkate jaunak (BILDU) proposamenaren berri eman du:

“AURREKARIAK

I. Aipatutako ordenantza indarrean sartu ondoren (GAO 2014-11-15) Igartzako aparkalekuko obrak amaitu ziren eta aparkaleku modura erabilera ematen hasi eta gero, konprobatu zen ibilgailuen plazak duten tamainagatik auto-karabana eta bizitoki-ibilgailuak ere erabiltzeko modukoak direla, baina ez egonaldi bezala baizik eta aparkatzeko.

Horrez gain esan beharra dago, auto-karabanak eta bizitoki-ibilgailuak gainerako ibilgailuen plazetan aparkatzearen debeku espresurik ez dagoela herrian zehar.

II. Gainera indarrean dagoen ordenantzak erabiltzen duen terminologia ez da oso zehatza Igartzako aparkaleku plazen erabilera eta ezberdintasunei dagokionez eta honek herritarrengan nahasketa sortzen du.

Honen ondorioz, merkataritza eta turismo batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio.

Lehenik. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2013ko azaroaren 15ean argitaratu zen “auto-karabanentzako eta bizitoki-ibilgailuentzako zerbitzugunearen ordenantza”, nahiz 2014ko urtarrilaren 23an plenoak onarturako ordenantzaren aldaketa baliorik gabe uztea.

Bigarren. “Auto-karabanentzako eta bizitoki-ibilgailuentzako zerbitzugunearen ordenantza” berriari hasierako onespina ematea. Ordenantza honen testua proposamen honi atxikita doa.

Hirugarren. Informazio publikoan jartzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratuz, 30 eguneko epean, murtziloak eta iradokizunak aurkezteko. Epe horretan ez bada alegaziorik aurkezten, behin-betikotzat onartua geldituko da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

Beraz, auto-karabanentzako eta bizitoki-ibilgailuentzako zerbitzugunearen ordenantzaren testua honela gelditu da:

“1.artikulua. Helburua

Ordenantza honen helburua da, alde batetik, autokarabanak eta bizitoki-ibilgailuak Beasaingo udalerriko Igartza Oletako aparkaleku publikoan, egonaldi-erabilerako plazak arautzea, trafikoaren ordenazio-egokia bermatzeko eta aparkaleku publikoan txandaketa egokia eta bidezko banaketa segurtatzeko eta beste aldetik, akanpada librearen debekua betetzen dela bermatzea.

2.artikulua. Erabilera-arauak.

Igartza-Oletako aparkaleku publikoan R batekin markatuko dira autokarabanentzat eta bizitoki-ibilgailuentzat izango diren egonaldi-erabilerako plazak.

Gune honetan erabilera-arau hauek bete behar dira:

1. Erreserbatutako lekuetan autokarabana edo bizitoki-ibilgailuak bakarrik izango dute aparkatzea, ez ordea, bestelako ibilgailuak, adibidez kamioiak, karabanak, autoak, e.a.

Salbuespen gisa, Udal baimena eman ahal izango da autokarabanak eta bizitoki-ibilgailuak, gainerako ibilgailuei erreserbatutako aparkalekuetan, egonaldi-erabilera emateko eta behar izanez gero, 2.8 artikuluan agertzen den denbora luzatu ahal izateko. Kasu horretan, gainerako ibilgailuek beraienez erreserbatutako aparkalekuetan aparkatzeko duten debekuaren berri komenigarria ikusten den bidea (kartelak, web orria, udal poliziaren argibideak) erabiliz emango da.

2. Autokarabanak edo bizitoki-ibilgailuak altxagarriak jar ditzakete aparkatuta daudenean.

3. Egonaldi-erabilerako plazetan autokarabanak edo bizitoki-ibilgailuak, betiere errespetatu beharko dituzte plaza bakoitzaren mugak eta inolaz ere ezin izango da, kanpoaldera mahaiak, aulkiak, olanak, eguzkitakoak edo beste edozein tresna atera. Plaza horiek egonaldi-erabilerarako bakarrik erabiliko dira.

4. Egonaldi-erabilera plaza erabiltzea doakoa izango da.

5. Erabiltzaileek autokarabanek eta bizitoki-ibilgailuek sortutako ur grisak eta beltzak botatzeko gune berezia izango dute. Bestalde, ur edangarria hartzeko gunea eta argindar toma ere izango dute. Zerbitzu horiek erabili ahal izateko horretarako eratuko den txartela eskuratu beharko da. Txartel horren balioa, ordenantza fiskalean zehaztuko da eta non eskuratu daitekeen aparkalekuan bertan adieraziko da.

Txartelaren inguruko informazioa, Beasaingo Udalaren web-orrian (www.beasain.org) ere jarriko da.

6. Autokarabana edo bizitoki-ibilgailuentzako egonaldi-erabilera plazan ezinezkoa izango da ibilgailu horiek garbitzea. Momenturo aparkaleku-plaza txukun egon beharko da eta beti ere, aparkaleku-plaza uzten denean garbi eta zaborrik gabe utziko da. Garbiketa debekua beste ibilgailuentzat ere izango da.

7. Zerbitzuguneak erabiltzen dituztenek onartu egingo dituzte inguru hori zaintzeko eta babesteko eta auzotasun jator eta gizalegezkoa izateko Udalak egindako oharpen guztiak.

8. Egonaldia gehienez ere hiru egun jarraikoa izango da. Ezinbesteko kasuetan bakarrik, eta aurretik Udaltzaingoaren edo Alkatearen baimenarekin, baimendutako gehieneko denbora hori gainditzea egongo da.

9. Igartzako aparkamenduan, autokarabanek edo bizitoki-ibilgailuek, egonaldi-erabilera erreserba ez duten plazetan aparkatu ahal izango dute.

10. Interes publikoak horrela eskatzen duenean, eta modu justifikatuan edo denbora mugatuan Udalak Igartzako aparkaleku osoa erabili ahal izango du herritarren onurarako denean.

3.artikulua. Kanpaldi librea debekatzea.

Debekatuta dago autokarabanak eta bizitoki-ibilgailuak aparkatzeko eremu erreserbatuan kanpaldi librea egitea. Debeku hori ez betetzea zigorra jartzeko arrazoia izango da.

Kanpaldi libretzat hartuko da:

a) Aisiarako edozein tresna jartzea Igartzako Oletako aparkalekuan.

b) Hiru egun baino denbora gehiago egotea autokarabana eta bizitoki-ibilgailuentzako aparkalekuan.

c) Edozein udal ordenantzaren aurka doazen jarduerak.

4.artikulua. Ikuskapena

Udal honi dagokio ordenantzaren jarraipena egitea eta ikuskapena egitea betetzen den ala ez ezagutzeko eta horretarako eskumena eta ardura, agintaritza-agenteeek izango dute.

Ordenantza honekiko arau-hausteak egiten badira, zigorrak ezartzeko prozedura izapidetuko da, Zehatzeko Ahala erabiltzeko Araudia onartzen duen abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretuan aurreikusitakoaren arabera.

Alkate jauna izango da zigortzaile-prozedurari hasiera emateko eta izapidetu ondoren, erabakitzeko eskumena izango duena.

5.artikulua. Arau-hausteak

Arau-hausteak, arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke eta honela sailkatzen dira:

a) Arau-hauste arinak:

- Autokarabanak, bizitoki-ibilgailuak eta bestelako ibilgailuak aparkalekuan garbitzea.

b) Arau-hauste larriak:

- Ibilgailua, kamioi, karabana, autoak, e.a. autokarabanentzat eta bizitoki-ibilgailuentzat erreserbatutako egonaldi-erabilera plazetan aparkatzea.
-Autokarabanek edo bizitoki-ibilgailuek egonaldi erabilera ematea, horretarako erreserbatuta ez dauden plazetan.

- Egonaldi-erabilerako plaza uzten denean, txukun eta garbi ez uztea.

- Hiru egun baino denbora gehiago egotea autokarabana eta bizitoki-ibilgailuentzako egonaldi-erabilera plazan, horretarako baimenik izaten ez bada.

c) Arau-hauste oso larriak:

- Kanpoaldera mahaiak, aulkiak, olanak, eguzkitakoak edo beste edozein tresna ateratzea.

6.artikulua. Zigorrak

Aipatutako arau-hauste horiei dagozkien zigorrak, 1985eko apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak erregulatzen dituen Legearen 141. artikuluan ezarritakoak izango dira.

7.artikulua. Erantzukizuna.

Igartzako aparkaleku eremua ez da zaintzapeko eremua. Beraz, Beasaingo Udalak ez du erantzunik bere gain hartuko baldin eta gorabeherak, lapurretak edo antzekoak gertatzen badira aparkatuta dauden autokarabanetan eta bizitoki-ibilgailuetan.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Ordenantza honek baliorik gabe uzten du, 2013ko azaroaren 15ean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako ordenantza.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza honek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.”

6.- ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA. Kontratua luzatzea.

Alkatea jaunak proposamenaren berri eman du:

“2010eko otsailaren 226an Udalbatza Osoak erabaki zuen Beasaingo udalerriko etxez etxeoko laguntza zerbitzua GOXARA S.L.ri behin-behinik esleitzea eta Alkateak behin betiko esleipena eman zuen 2010eko irailaren 10ean.

Zerbitzuaren esleipena 2010eko irailaren 11an hasi eta kontratua amaituko da 2014ko irailaren 11an. Luzatu ere egin daiteke, espreski adierazita eta alderdiek adostuta, gehienez beste bi (2)urterako.

Etxez etxeoko laguntza zerbitzua era egokian eman denez, Gizarte Ongizate Batzordeak 2014-03-13an egindako bileran proposatu du Udalerrian etxez etxeoko laguntza zerbitzua emateko, Goxara S.L. enpresarekin Udalak sinatuta duen kontratua 2 urtetarako luzatzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena, eta horren ondorioz, ondorengo erabakia hartu da:

Lehenik. GOXARA, S.L.rekin sinatutako kontratua luzatzen da etxez etxeoko laguntza zerbitzua emateko, 2009ko urriaren 30eko Udalbatza Osoak onartutako baldintza tekniko eta administratiboen arabera.

Bigarren. Luzatze hau bi urtetarako egiten da, hau da, 2016ko irailaren 11 arte. Epe horretan kontratua amaitu egingo da.

Hirugarren. Gaur egun, ordaintzen diren diru kopuruak honakoak izango dira:

- Astelehenik, ostiralera bitarte: 18,72 €/orduko + BEZ.
- Asteburuak eta jaiegunak: 22,48 €/orduko + BEZ.

Kopuru horren barruan sartuta daude aplikagarriak diren tasa, zerga, joan-etorriko gastuak, kontribuzio edo edozein eratako kargak eta, bereziki, Balio Erantsiaren Gaineko Zerga.

Prezio hauek, 2014ko abenduaren 31 arte egongo dira indarrean. 2015ko urtarrilaren 1etik aurrera, urtean behin eta hurrenez hurren (luzapenak barne), prezioa eguneratuko da EAEko Kontsumorako Prezioen Urteko Indizea (KPI) aplikatuta (aurreko urtekoa); indize hori Estatistika Institutu Nazionalak argitaratzen du.

EAEko Kontsumorako Prezioen Urteko Indizea negatiboa bada, kontratuko prezioa aurreko ekitaldiko berbera izango da.”

7.- MOZIOA: PSE-EE / PSOEk aurkeztutako mozioa Euskadiko Udal Legeari buruz.

Alkatea jaunak, Alfonso Segade (PSE-EE /PSOE) zinegotziari hitza eman dio eta honek ondorengo mozioa irakurri du:

*“MOCIÓN PARA EL IMPULSO Y APROBACIÓN DE LA
LEY MUNICIPAL VASCA*

El Grupo Municipal Socialista presenta para su tratamiento en Pleno, la siguiente MOCIÓN para el impulso y aprobación de la LEY MUNICIPAL VASCA

JUSTIFICACIÓN

La Ley 27/2013, de 27 de diciembre, de racionalización y sostenibilidad de la Administración Local (en adelante LRSAL) fue publicada en el Boletín Oficial del Estado, número 312 del lunes 30 de diciembre de 2013, estableciendo la disposición final sexta de esta ley su entrada en vigor el día siguiente al de su publicación. Se trata de la conocida de manera más popular como “Ley de la Reforma Local” que, supuestamente, persigue racionalizar la Administración Local y eliminar duplicidades, competencias impropias, etc...todo ello bajo teóricos criterios de austeridad y en el contexto de la crisis que nos azota desde hace ya cinco años.

Sin embargo, la trascendencia práctica del texto aprobado por el PP y el PNV va a ser muy diferente: para empezar, lesiona gravemente la autonomía local que la propia Constitución garantiza, al ejercer una tutela económica y jurídica sobre los ayuntamientos totalmente inaceptable, y más teniendo en cuenta que menos del 5% de la deuda de la Administración española pertenece a los Ayuntamientos. Asimismo, abre el camino a la privatización de muchos servicios prestados públicamente por los ayuntamientos, deja de prestar otros e incluso propone desapariciones “de facto” de municipios inferiores a 20.000 habitantes, que, por ejemplo en Euskadi, son la inmensa mayoría.

A todo esto hay que sumar la ausencia de una Ley Municipal Vasca que pudiera paliar en la medida de lo posible o servir de paraguas a las consecuencias de

esta Reforma Local; pero lo cierto es que, después de más de 30 años de autogobierno, y a pesar de ser una competencia propia, nunca se ha desarrollado esa Ley Municipal, que es una demanda histórica de los ayuntamientos vascos, especialmente en los últimos años.

*Sin embargo, y aún siendo un compromiso adquirido por el nuevo Gobierno Vasco del PNV, y de haberse comprometido en sede Parlamentaria su Portavoz, Sr. Erkoreka, a enviar al Parlamento Vasco la Ley Municipal en el **primer semestre** de 2014, de nuevo hace escasos días en el Parlamento, a preguntas del Grupo Socialista, el propio Portavoz reconoció que “quizá se retrase algunos meses, a septiembre u octubre”. Es decir, una nueva demora sin fecha fija y sin concretar nada, lo cual, si ya antes de la Reforma Local era urgente, ahora se convierte en acuciante.*

Por todo ello, es por lo que este Grupo Municipal presenta la siguiente

MOCIÓN

1.-El Pleno insta al Gobierno Vasco a cumplir sus compromisos adquiridos en sede parlamentaria y a remitir, en el primer semestre de 2014, la Ley Municipal Vasca al Parlamento Vasco, para iniciar su tramitación y aprobarla a la mayor brevedad posible.

2.- El Pleno solicita que en la tramitación de esa Ley sean escuchados y tenidas en cuenta sus opiniones, los Municipios Vascos, representados en EUEDEL y las diferentes Asociaciones o entidades municipales existentes, con el fin de atender y acoger sus demandas en la medida de lo posible.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Nosotros aunque en lo expositivo no estamos de acuerdo respecto a la mayoría de lo que se ha dicho, ya en la anterior legislatura era el principal objetivo y tampoco se consiguió. En Madrid se está peleando por parte del partido nacionalista vasco para que no tengamos el mismo régimen que en las demás autonomías sino que se defiendan los derechos históricos del a Comunidad Autónoma. Con las dos disposiciones estamos de acuerdo y votaremos a favor.”

Bozketa eginda, aho batez onartu da.

8.- ALKATEAREN EBAZPENAK. 2014ko urtarrilaren 20tik 2014ko martxoaren 29a bitartean emandako Ebazpenak

Ezagutzera eman dira, 2014ko urtarrilaren 20tik 2014ko martxoaren 29a bitartean emandako Ebazpenak

PREMIAZKO PUNTUAK

Alkatea jaunak ezagutzera eman du, hiru premiazko puntu daudela, hau da, Administrazioako erabilera plana onartzea eta bi mozio.

Premiazko puntua modura gai horiek sartzea bozkatu da eta aho batez onartu da. Horren ondorioz, gaiak eztabaidatzera pasatu da.

UDAL ADMINISTRAZIOKO ERABILERA PLANA: 2014-2017

Alkate jaunak (BILDU), Kultura eta Euskera Batzordeak egindako proposamenaren berri eman du:

“1995eko maiatzaren 17an, onartu zen Udal Administrazioako lehen euskara-plana. Hasiara hartan, Kiroldegian jarri zen abian. Ondoren, Gizarte Ongizatean eta baita Udaltzaingoan ere.

II. plangintzaldian, 1998-2002, etenaldi baten ondoren, 2000. urtean Plana osotasunean hartu zen HPSren gidaritzapean, AEBEMET metodologia jarraituz. Batez ere, lan eginkizunen azterketa eta inplementazio lanean jarri zen indarra. Dokumentu asko berrikusi, zuzendu, egokitu eta aldatu ziren eta euskara hutsezko ereduak prestatu ziren.

2003an Beasaingo Udalak 2003-2005 urte bitarteko Euskara Biziberritzeko Plana onartu zuen, eta horretan jaso ziren III. Plangintzaldiko, 2003-2007, lehentasuna izango zuten ekintzak. Plangintzaldiak hiru helburu nagusi izan zituen:

1.- Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea. Horretarako erakundeak beharrezko diren neurriak hartuz joan da herritarraren hizkuntza-eskubideak errespetatzeko eta harreman mota guztietan, idatzizkoetan zein ahozkoetan euskararen erabilera bermatzeko.

2.- Euskara, udaleko langileen arteko lan-hizkuntza izatea. Beharrezkoa da ahozko komunikazioa bultzatzea, konpromisoen sistemaren bitartez, nolabaiteko protagonismoa hartzen joan da, hala ere, oraindik ahozkoa sustatzeko estrategia berriak martxan jartzeko beharra ikusten da.

3.- Udalaren jarduera-eremuetan hizkuntza-irizpideak ezartzea. Hizkuntzarekiko jokaera bateratu eta sistematikoa lortzeko hainbat neurri hartu ziren, besteak beste, Baldintza Plegu, hitzarmen eta kanpoko kontratazioetan hizkuntza irizpideak jarri eta jarraipena egin zitzaizen, lanerako formazio-ikastaroetan euskarari lekua egin zitzaion eta aplikazio informatikoak euskaraz erabiltzeko moduan jarri ziren.

IV. plangintzaldia 2008an hasi eta 2012ko abenduan amaitu zen eta helburu nagusia hau: sail guztietan euskararen erabilera gehitzeko, euskara herritarrekiko harremanetan zerbitzu hizkuntza, beste administrazio batzuekiko harreman hizkuntza eta udal barruko lan hizkuntza izan dadin. Plangintzaldiaren jarraipena egiteko, Udaleko Sailetako Barne Kudeaketan txertatu ziren euskara areagotzeko ekintzak eta horien jarraipena batzorde horrek egin zuen, bertan parte hartzen baitute, Alkateak eta udaleko teknikari guztiek.

V. Plangintzaldia 2014an hasi eta 2017an amaituko da. Plangintzaldi honetako helburu nagusia herritarren hizkuntza eskaerei era egokian erantzutea da. Eta horren haritik udalak herritarrei zerbitzua emateko egiten dituen kontratuetan hizkuntza irizpideak txertatuko ditu eta udaleko sail bakoitzak bere departamenduko hizkuntzaren kudeaketa egitea izango dira egiteko nagusiak.

Martxoaren 31ko Kultura eta Euskara Batzordean aurkeztu zen V. Plangintzaldiko dokumentua.

ERABAKIA:

Euskara Erabilera Planaren V. Plangintzaldia Udal Batzak onartzea.”

Alkate jaunak (BILDU): “Esan puntu hau premiazko puntua bezala sartzearen arrazoia, dirulaguntza eskakizuna egitea dela. Astelehenean pasatu zenez batzordetik, ikusten genuen egokia zela Pleno honetatik pasatzea ondoren dirulaguntza eskatzeko.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Dirulaguntza arrazoia da, baina arrazoi nagusia izango litzateke plangintzarik gabe gaudela. IV. Plangintza 2012. urterarte zen eta horrek bi urteko hutsunea ekarri du. Nire ustez garrantzi handia hori izan beharko litzateke. Dirulaguntza garrantzitsua da, baina plangintzak epe batzuk dituzte eta plangintza berria martxan jartzea da inportantea. Epeak jartzen dira eta epe horietan lan batzuk egin behar dira. Behin epe horiek betetzen direnean, lan horiek egintzat jotzen dira. Bi arrazoiak dira garrantzitsuak.”

Garbiñe Zurutuza andreak (ARALAR): “Etenaldirik ez da egon, zeren eta aurreko plangintzaren luzapen bat egon zen.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

Alkate jaunak, Aitor Aldasoro jaunari hitza eman eta honek ondorengoa adierazi du: “Guk bi mozio planteatu ditugu, bat Alderdi eguna dela eta bestea hondakinen inguruan Foru Aldundiak hartutako erabakiak.

ALDERDI EGUNARI BURUZKO MOZIOA

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ) ondorengo mozioa irakurri du:

“Aturritik Ebrora eta Enkarterrietatik Añamendira, Pirinioetako bi aldeetan 685 udalerrietan bizi garen 3 milioi euskal herritarren gehiengoak, gure hizkuntza, kultura, edo jatorria edozein izanik ere, Euskal Herritar gisa bizi nahi dugu. Gure eskubide zibil eta politiko barne, Nazioarteko Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaletik eratortzen diren eskubide guztien jabe bizi nahi dugu Euskal Herri osoan.

Baina hori, zoritxarrez ez da gaur guk pairatzen dugun errealitate politiko administratiboa. Euskal Herria estaturik gabeko herri bat da, eta gu, euskal herritarrok gure borondatearen gainetik, ofizialki frantziarrak edo espainiarrak izatera beharturik gaude. Gure udalerriak 2 estatuetan sakabanaturik daude. Alde batetik, Ipar Euskal

Herriko 159 udal Frantziako Errepublikako Akitania izeneko erregioaren Pirinio Atlantikoetako departamentuaren barruan daude, Biarnoarekin batera diluiturik, inolako aitortza politiko administratiborik gabe. Bestetik, Espainiako Erresuman administratiboki kokatzen dira beste 526 udal. Hurrenez hurren: 272 Nafarroako Foru Komunitate izeneko Autonomia elkargoan, 251 Euskadiko Autonomia Elkargoan, 2 Gaztela-Leongo Autonomia elkargoko Burgos Probintzian eta azken bat Kantabriako elkargo autonomoan.

Errealitate hori ez da Euskal Herritarrek libre eta demokratikoki erabaki egin duguna, gerra eta konkistaz beteriko historiaren ondorioa baizik. Errealitate hori era demokratiko batean aldatzeko. Horretaz gain, Euskal Herriko udalek lan aitzindaria eta garrantzitsua egin dute historikoki. XX. mendean adibidez, horren lekukoa da 1931. urteko Lizarrako estatutua, 1976. urteko Bergarako alkateen mugimendua, autonomia estatutua berreskuratzeko eskaria egiten zuena. Erkidego Autonomoan 1979ko urriaren 25an herritarrek onetsi zuten, azkenean, Gernikako Estatutua, Euskal Herriari dagozkion eskubide historikoen gaurkotzeari aurrerantzean ere ateak zabaltzen dizkion testua. Aipagarria dira ere Ipar Euskal Herrian 1998. urtea geroztik Euskal Departamenduaren alde egindako aldarrikapen eta mobilizazioak.

XXI. mendea hastear zegoelarik Euskal Herriko udal eta Udal hautetsien Biltzarra, Udalbiltza, beste mugarri esanguratsua izan zen. Zeinek Euskal Herriaren nazio eraikuntza bultzatzea, prozesu dinamiko eta demokratiko gisa ulertzen zuen, eta euskal herritar guztien erabakimen eta partehartzea askean oinarritu behar zela zioen.

Horretarako behar beharrezkoa da gure Herrirako erabateko bakea eta bizikidetzaren demokratikoa bermatzea. Bake iraunkorra, elkarrizketaren, justiziaren, egiaren eta gure Herriaren interes orokorrari bideratuz landua.

2014. urte honetan abagune berezia ari gara bizitzen. Begi bistan daude kontrako eta aldeko faktoreak. Alde batetik, nabaria da Espainia eta Frantziaren ezezko iraunkorra... Baina han daude ere Europako estatu berrien sorrera, Katalunia eta Eskoziaren autodeterminaziorako erreferendumak edo "gure esku dago" bezala, Euskal Herrian sortzen ari diren herri ekimen arrakastatsu berriak.

Horregatik, Euskal Herriaren egunaren bezperetan, Euskal Herritarren egunera hurbiltzen ari garenean, aurreko guztia aintzat hartuz, Beasaingo herriko udalak Aberri Egunerako ohiko osoko bilkura honetan, hurrengo adierazi nahi du:

1.- Euskal Herritarrak garelako adierazteko garaia heldu dela eta ozenki esan nahi dugulako, Euskal Herritartasunaren aldeko herri dinamika sortzeko eta sustatzeko deia luzatzea erabaki dugu.

2.- Kaleetan zein eraikuntza publiko eta partikularretan ikurriña (Euskal ikurrak) jartzeko gonbidapena luzatzen dugu honen bidez. Zer ez garen baino, garena eta sentitzen duguna gure ikurriñaren (ikurren) bidez publikoki adierazteko gonbidapena luzatu nahi diogu herritar orori.

3.- Gure herrirako benetako bake eta bizikidetzaren demokratikoa, elkarrizketaren, justiziaren, egiaren eta gure herriaren interes orokorraren bitartez landua izango dena, lortzea helburu duen Eusko Legebiltzarrean abian den Bake eta Bizikidetzaren lantaldeari

gure babesa eskaintzen diogu, eta, era berean, baita beste gainontzeko Lurraldeetan sor daitezkeen antzeko ekimenei ere.

4.- Egungo gizartean elkarri zor diogun begirunetik, eta guztion ondare diren eskubide demokratikoetatik abiatuz, gure asmoa herritar askez osatutako aberri aske bat lortzea dela aitortuz, justizia soziala eta guztion aurrerabidea bermatuko duena, zer garen ulertzeko oroimen historikoa berreskuratzeko konpromisoa hartzen dugu. Herri bakar bat osatzera garamatzaten ezaugarri eta kultur ondare amankomuna aitortuz eta zainduz, horrekin batera herritar guztien ezaugarri eta eskubideak zainduko dituen gizarte aurreratu bat lantzeko etengabeko asmoa adieraziz.

4.- Independentziari buruz Etxarriko herriak apirilaren 13an burutuko duen herri kontsultari erabateko babesa adierazi nahi diogu. Euskal Herriari dagokion erabakitze eskubide demokratikoaren ariketa sinboliko jotzen dugun neurrian bere zilegitasuna aitortzen diogulako.

5.- Zentzu berean eta arrazoi berdinegatik, "Gure esku dago" herri ekimenak ekainaren 8rako antolatu duen Iruñea eta Durangoren arteko giza katean parte hartzeko deia, eta oro har, "Gure esku dago" herri dinamikari erabateko babesa adierazi nahi diogu."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Alkate jaunak (BILDU): "Gu mozioaren bost puntuekin ados gaude, baina mozioarekin abstenitu egingo gara ondorengo arrazoiengatik: lehenik eta behin ez dugu ulertzen mozio hau pleno bezperan sartzea. Denok dakigu aberri eguna noiz den eta data horiek noiz diren. Iruditzen zaigu deialdi normalaren bidez sartzea dagoela. Horrezaz gain, uste dugu gurekin ezer ez dela kontatu eta aurretik sartu ezkerok guk ere gure ekarpenak egiteko moduan egongo ginateke. Mozio oso ondo ikusten dugu, puntuak horrela dira, baina uste dugu mozioetatik areago ere, kalean modu aktiboan lan egin beharko litzateke egiten dena baino gehiago."

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): "Ni ados nago esaten denean aberri eguna noiz den. Jakiten ez duguna da Plenoak noiz izango diren. Arazoa hori da. Galdeduta ere, momentuan erantzuna jasotzen dugu, gairik ez dagoelako, baina ez dugu benborarik izaten. Gu enteratzen gara, Osoko Bilkura dagoela, idazkariak dokumentazioa bidaltzen digunean, ez aurretik. Esan testu hau, BILDUREkin adostutakoa dela gainontzeko herrietan. Ez hemen, noski, goimailan. Baina arrazoiak horiek dira, ez ez dela landu BILDUREkin testua, justu kontrakoa. BILDUREkin adostutako testua hartu da eta aurkeztu da behin jakinda Osoko Bilkura egongo zela. Zaborrekin berdinean pasatzen da. Aurretik jakingo bagenu, aurretik sartuko litzateke. Ea hurrengorako lehenago enteratzen garen. Behintzat, Osoko Bilkura noiz izango den!. Horretarako lagunduko du."

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 7 (EAJ, H1, PP)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 7 (BILDU, ARALAR)

PSE-EE/PSOEKO zinegotziek ez dute bozketan parte hartu.

Horren ondorioz, gehiengo soilarekin onartu egin da mozioa.

SASIETAKO ZABORTEGIARI BURUZKO MOZIOA

Aitor Aldasoro jaunak mozioa irakurri du:

“SASIETAKO ZABORTEGIA

